

IDEIA

Gure Volkswagen furgonetak Tolosan gordeko ditugu. Furgoneta hauek Volkswagen auto markari erosiko dizkiogu, ondoren, gure pabeioietan bidaietarako ekipatu eta internet bidez hauek bidaietarako alokatzeko aukera izango da. Gure helburua jendeak merke eta eroso bidaiatzeko aukera izatea da.

GURE PROPOSAMENA

Euskal Herriko gazteei modu eroso, praktiko eta merke batean bidaiatzeko beharra asetzea da gure helburua, gure furgonetekin.

Gure produktuak hainbat prestazio ditu eta bidaietarako espezializatua egongo da. Gainera, merkeagoa izango da. Horrez gain, opor motaren arabera, pertsonalizazioa izango du, hau da, ekipamendu ezberdina izango du kostaldera edo mendialdera bazoaz adibidez.

Balio kuantitatiboa izango du, prezio merkea izango delako.

Gainera, alokatzen dutenei hainbat lan erraztuko zaizkie, adibidez, lotarako lekua ez duzu aurkitu beharrik. Gure furgonetak oso 'troteroak' dira, gainera, oheak dituzte. Horrez gain, gauzak egiterakoan fexibilitate eta askatasun handia eskaintzen dute, bertan, bazkaltzeko eta abar aukera izango dute bezeroek. Beraz, ez da beharrezkoa izango hotelen ordutegiaren menpe egotea, eta horrek bidaia askoz erosoagoa egingo du. Volkswagen markako furgonetak izango dira, punta puntakoak, modan daudenak. Seguruak eta istripurik gertatuz gero seguruak babestua. Azkenik, gazteek eskuragarri izan dezaten, merke alokatzeko aukera izango dute.

Estilo txikiko furgonetak: <https://www.youtube.com/watch?v=fQYjoYDvZC4>



Estilo handiagoko furgonetak: <https://www.youtube.com/watch?v=me2bn9dMt2E>

